

Sakabanatuak biltzea erronka

Euskararen ezagutzak nabarmen egin du gora Gipuzkoako bigarren hiririk populatuenean. Euskaraz gutxi hitz egiten da, ordea. Irunek euskaldun komunitate zabala du, baina sakabanatua dago; erabilera sustatzeko hitzun horiek bilduko dituen sarea sortzea da erronka.

MIKEL GARCIA

21.334 EUSKALDUN eta 11.946 ia-euskaldun. Erdaldunak berriz, 25.186. Horra Irunen euskararen ezagutza maila neurtzeko Eustatek eta Siadecok 2006an egindako azken azterketaren emaitzak. Lehen aldiz, erdaldunak biztanleriaren erdia baino gutxiago dira (%43). Euskararen erabilera neurtzeko 2007an egindako azken ikerketa ordea, ez da hain baikorra: %5,5ak baino ez du euskaraz hitz egiten (2001eko azterketan, %5,4ak eta 1984koan, %6ak). Iban Eguzkitza eta David Izaga Udaleko euskara teknikarien arabera, gaur egun askok hezkuntza sisteman —edo euskaltegian, lanerako behar dutelako— jaso dute euskara, baina hizkuntza naturala gaztelania dute. A eredu-ko ikastetxe bakarra dago, gainontzekoek B edo D eredia dute,

eta hiru euskaltegi eta Hizkuntza Eskola Ofiziala ditu Irunek.

%5,5 oso gutxi dela aitortu dute udal teknikariek, eta horrek metodologiaren analisi sakona eskatzen duela. Kontua da komunitate linguistiko euskalduna ez dagoela bildua, herri txikietan bezala: “21.000 euskaldunetik gora gara Irunen, izugarritzko masa kritikoa da hori, eta gure lanak izan behar du ehun sozialak eratzea hitzunak elkartzeko; euskaldun sare bat aktibatzea lortu behar dugu, euskara erabiltzeko esparru duin bat sortzea”, diote. Banan-banako harremanean adibidez, %12,3ak hitz egiten du euskaraz, saltokietan egindako ikerketaren arabera. Teknikariaren hitzetan, badi-rudi Irunen beste herri batzuetan baino zailagoa dela euskaraz dakien

jendea topatzea kalean, hizkuntza neutro nagusia gaztelania dela dirudi, baina dendetan harremana egina dago lehendik eta jendeak badaki harakina euskalduna bada euskaraz egin diezaiokeela.

Erronka nagusia erabilera sustatzea dela uste dute baita ere Irun Irunen euskara elkarteko kideek. Duela hamar urte jaio zen elkarteak euskararen aldeko lanean dihardu, Udalarekin elkarlanean, eta baikorrak dira euskararen ezagutzak gora egin delako: etorkizuneko gupila sortzea da bidea, gaurko haur euskaldunak etorkizuneko eragile euskaldunak izan daitezen. Hala ere, kritiko agertu dira Udalean bertan euskararen erabilera oso eskasa delako. “Duela hamabost urte, Irunen euskararen egoera kaskarragoa zenean, bulegoetako langileek euskaraz zekiten; eta orain alderantziz, zenbait leihatiletan gaztelaniaz hitz egin behar duzu, edo izapideak gaztelaniaz bete. Eta Udalak antolatutako ekitaldi asko gaztelania hutsean dira, baina euskararen ezagutza hainbeste handitu bada, ekitaldietan hori islatu beharko litzateke”, kexu da Josetxo Arrieta Irun Iruteneko lehendakaria. Udal langileak euskalduntzeko plana badutela adierazi dute teknikariek.

“Euskal Herriko egoeraren isla da Irun”

Udalaren egunerokotik kanpo dagoen irundar bati ere galdetu nahi izan diogu, hirian euskarak bizi duen egoeraz. Joxean Elozegi itzultzaile eta euskalgintzan ari-tuak honakoak esan dizkigu: “Euskal Herriko egoeraren mapa egiteko eredu bat beharko bagenu, batez bestekoa, Irunek balioko luke, Euskal Herriko egoeraren irudia edo isla dela esan baitaiteke. Panorama zein den? Irun herri erdalduna da, eta beharbada euskaldun asko bizi da herri erdaldun honetan, baina orokortasuna erdara da, eta euskara salbuespen gisa tratatzen du Udalak, eskubide

personal gisa, eta ez herri mailako eskubidetzat. Erdibideko bide goxo bat asmatu dute, euskara eta gaztelaniaren errespetuarena... baina gezur hutsa da; egia zera da: erdara oso boteretsua da eta euskara oso ahula, finean hizkuntza boterea baita. Ez dut Biziberritzeko Planetan eta halakoe-tan sinesten. Nire ustez oker eta hanka-sartze handiak egin dira bidean; egoera berriz goitik behera aztertu, dena zalantzan jarri, eta zerotik abiatu behar gara, lehengo errezetarik errepikatu gabe. Indarrak batzea litzateke premisa, bazterrean inor utzi gabe”.

Irungo berezitasunak

61.000 biztanletik gorako hiria izateak bakarrik ez, Ipar Euskal Herriarekin muga egiteak eta merkataritza oinarritutako hiria izateak ere eragiten dio Irungo euskarari. Arrietaren esanetan, mugan egotea aprobetxatu beharreko aukera da: “Euskara zubia da mugan, edo behar luke, Hendaian ere askok hitz egiten



Duela bi urtetik, Irunen egiten den eskola kirol guztia euskaraz egiten da, begirale profesional eta euskaldunak kontratatuz.

baitu euskaraz. Baina oraindik mentalki urruti gaude, eta askorentzat hura Frantzia da eta hau Espainia. Aduanarik gabe harreman handiagoa dago, baina... Interesgarria litzateke adibidez merkataritza eta saltoki guneetan euskara bultzatzeko ekimenak egitea, Iparraldetik jende andana etortzen delako hona erostera". Hain zuzen, Irungo hainbat auzotan —merkataritza gune handiak dauden hiruetan, zehazki— gehiago egiten da frantsesez, euskaraz edo gaztelaniaz baino.

Saltokietan euskara sustatzeko ohiko ekimenez gain, Irungo Komerzioaren Behatokiarekin elkarlana bultzatu du Udalak, besteak beste merkatarientzako euskarazko formazioa eskainiz. Harrera ona izan du programak eta 2006an 117 saltzailek eman zuten izena ikastaro berezietan parte hartzeko; horietatik 84k jarraitzen dute. Halaber, Mugaz Gaiandiko Partzuergoan Hendaia, Hondarribia eta Irungo euskara teknikariak biltzen dira, baina diru partida txikia du eta hiru herrietako euskarazko ekitaldien gidaz gain, gauza gutxi egin da elkarlanean. Teknikariek diotenez, "bi mundu dira eta burokrazia izugarria dute Iparraldean, zerbait egiteko makina bat buruhauste ditugu han, Bordeleraino joan beharra dago, suprefetarengana".

Eskualdeko herriak (Hondarribia, Hendaia, Bera, Lesaka) Irun baino euskaldunagoak izan arren, elkarte

bezala nahiko bakarrik sentitu direla adierazi du Irun Iruteneko lehendakariak: "Hondarribian duela gutxi arte ez zegoen euskara elkarterik eta Udalak ez bazuen zer edo zer antolatzen ez zen mugimendurik ikusten; Hendaian bada elkarterik, baina eurentzako gauzak baino egiten ez dituztenak... Eskualde mailan, bultzeta eta bultzak aritu gara, baina babes falta nabaritu dugu".

Berezko ezaugarrietan azpimarratzekoa baita ere: hiruzpalau etorkin-jasa izan ditu Irunek. Gipuzkoan, bereziki Donostian eta Irunen biltzen dira etorkinak, eta Irunen %5a baino pixka bat gehiago dira etorkin ofizialak. Helduekin lana egin den arren —lokutorioen bitartez—, hauek beste lehentasun batzuk dituzte, eta indarrak batez ere haur etorkinetan jarri dira. Eurekin bai, hein batean lortu da interesa eta parte-hartzea erakartzea.

Ekintzetan ere, ahaleginak batez ere haur eta gazteengana bideratzen ditu Udalak, horietan baitago etorkizuneko harrobia. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitan 60 plangintza inguru bideratzen dituzte eta Irun Irutenekin elkarlanean honako ekimenak azpimarratu dituzte: Solas Jolas —udaleku irekiak, 1.000 haur inguruk hartzen dute parte—, Kalean Bai —haurrekin dabilzan elkarteak euskalduntzeko planak—, eta eskola kirola: azken ekimen horri esker, duela bi urtetik Irunen egiten

den eskola kirol guztia euskaraz egiten da, begirale profesional eta euskaldunak kontratatuz —500 haur inguruk hartzen du parte—. Josetxo Arrietak gazteetan ikusten du ahulezia nagusia: "Euren txokoetan biltzen dira, eta Irunen faltan botatzen dugu gune bat gazteak modu naturalean euren gauzak egiteko elkar daitezen, bertan euskara sustatzeko. Kontua ez da gauzak antolatu eta gazteak hara erakartzea, gazteak eurak protagonista izanda nahi dituzten ekintzak antolatzeko espazioak sortzea baizik".

Hedabideen afera

Ez hizkuntza politikarik, ez irizpiderik ez duenez, utzikieriatatik ia dena gaztelaniaz ematen duen telebista lokala du Irunek (Localia Txingudi). Prentsa idatzian, *Irunero* hilabetekaria da irundarrek duela gutxira arte euskara hutsean izan duten medio bakarra. Hilabetekaria astekari bihurtzeko dena prest zuen Irun Irutenek, baina krisi ekonomikoak asmoa zapuztu zien: Udalak esan zuen ez zegoela horretarako dirurik, eta *Irunerok* hilabetekari izaten jarraitzen du. Tartean, *Behe Bidasoako Hitz*a jaio da martxo bukaeran, eta Udaletik begi onez ikusten badute ere, Irun Iruten zalantzi dago proiektuaren aurrean; herritarren ekimenetik sortutako —eta propio Irunerako— astekari baten alde egiten jarraituko du elkarteak. ■

Babeslea: Bergarako Udala

